

Zamarroak edo **Olaztiko ihoteak** ihauteri asteko asteburuan ospatzen dira. Tradiziozko ospakizun hau **Zamarroek** osatzen dute: **Zamar Handiek, Zamar Txikiek eta Zamar Neskek**. Haien artean ere **Mari Arroka** pertsonaia, Olaztiko pertsonaia mitologikoa.

Larunbatean, herri bazkaria egin ondoren, Zamarraundiak, Zamartxikiak eta neskak prestatzen dira kalerik kale ibiltzeko, musikak lagunduta. Segizio honen aurretik herriko **Alkatea** eta **Alkatesa, Auntzaiak, Apaiza** eta **Medikua** joaten dira. Mari Arroka gurdi baten gainean daramate suzko igitai bat daramalarik, **Iratxoez** lagunduta.

Zamarroak kaleetara ateratzen direnean jendea izutzen saiatzen dira. Gurdi bat bete lur daramate eta lurra morrozorik gabeko jendeari botatzen diote. San Sebastian baselizara iristean jota dantzatzen dute eta plazara iristean Olaztiko zortzikoa dantzatzen dute. Zamarrandiek eta Zamartxikiek neskak banan-banan hartzen dituzte zortzikoa dantzatzeko.

Olaztiko *ihoteak* debekatu ondoren, 55 urte beranduago, 1992an berreskuratu ziren *ihoteak*.

Historia

Olaztin, beste hainbeste herrietan bezalaxe, gerra garaian desagertu zen *ihoteak* ospatzeko ohitura. Hasieran gerrarekin berarekin, ondoren, prohibizioeak zirela medio. Olaztiko *ihoteak* debekatu ondoren, 55 urte beranduago, 1992an berreskuratu ziren *ihoteak*. Lehen, hiru egun zituzten Olaztiko *ihoteek*: Lardero Eguna, Domeka Zamar Txiki eguna eta Zamar Haundi eguna. Gaur egun ihauteri asteko Larunbatean ospatzen dira.

Herriko auntzaia Lardero Egunean eskean ateratzen zen, goizean goiz, zesto eta zaku zuri batekin, eta atari batera iristean etxeakoandreaki deitzen zion. *Lukarikia* (lukainka), urdai puska, lauzpabost *maiz* buruak edo dirua ematen ohi zioten auntzaiari, eta honek, bitartean, abestu egiten zuen: «Eskean *despeituta* gero, bazkaltzera».

Mende hasieran abereak edo ganadua zeukaten familiek —ia herriko gehienak— medikuari, auntsaiari, baizaiei eta basozainei ordaintzen zieten. Urtean bi labore eskeintza egiten zuten. Bata garia zen eta bestea *maiza*. Erabakitako egunean udaletxean uzten zuten. Udalak garia eta artoa saldu ondoren pertsona horiei zerbitzuak ordaintzen zizkien.

Domeka Zamar Txikiko jaia domeka edo igande arratsaldean ospatzen zen. Gazteak, neskak eta ezkonduak, zamarrez jantzita ateratzen ziren. Zamar jantziek aurpegia beltzez —betunez edo ikatzez— margotzen zuten. Beste batzuek, berriz, ardi baten edo hartz baten maskaraz edo karatulaz estaltzen zuten. *Fariak* (zintzarriak) eta *kamantxilak* (kaskabiloak) larruzko lepezaldietan zeramatzaten. Zamar jantziek kaleko haurrak izutzen zituzten eta arrapatzen zutenari aurpegia zikintzen zioten, eskuetan izkaturik zeramaten lokatzaz edo ongarriaz. Ongarri hau zeramaten gurdi batetik hartzen zuten. Plazan, herriko txistulariek ttun-ttuna eta danbolina jotzen zuten Abemarik izan arte. «Abemarik jotzen *zenian despeitzen zan* musika». Dantza bukatzerakoan karatulak desagertzen ziren eta neskak plazatik joaten ziren. Domeka Zamar Txiki eguna, ofizialki gutxienez, bukaturik zegoen.

Zamar haundi egunean —*ihotetako* asteartea—, batzuk goizez agertzen ziren maskaraturik, baina ihauteriak arratsaldean animatzen ziren. Orduan kaleak zamar jantzienak ziren, leku guztietara iristen baitziren. Olaztik *karnabala* edo *ihotea* bizitzen zuen orduan. Dantza ondoren gazteek etxez etxe dirua eta jana eskatzen zuten danbolinarekin, oihuka, garrasika eta irrintzika. Gazte batek dirurako poltsa zerman eta beste lauek ongarri *zestuak* eramaten zituzten jakiak hartzeko. Eskaera honetan dirua, urdaia, *maiza*, ogia, *lukarikia* eta *tripotiak* ematen zizkieten. Hartutako diruarekin eta arto salmentaren diruarekin jaietako gastuak ordaindu, eta sobran gelditzen zena gazteen artean banatzen zuten.

Azken Zamar Txiki eta Zamar Haundiak 1937an ospatu ziren. Azken *ihoteetan*, Zamar Haundi eguneko arratsaldean konpartsa bat ateratzen zen. Zenbait neskek elizako argizariak gordetzen zituzten saskitxoetan eta dirua eskatzeko erabiltzen zituzten saskitxoak buru gainean jartzeko erabiltzen zituzten, kolorezko zintekin apainduta. Aurpegian zapi txuri bat edo kartoizko

karatula bat zeramaten zuloekin (begietan, sudurrean eta ahoan). Bizkarrean burusi bat zeramaten «kapa bat *bekela*». Abemarik jotzen zenean - atsaldeko elizako otoitza - Zomorro edo zamarroek maskara kentzen zuten eta Olaztiko zortzikoa, jota eta porrusalda dantzatzen zituzten. Gero desagertu egiten ziren.

Zamar haundiak Olaztiko inauterietan parte hartzen dute. Egun horretan daramaten mozorroa Maria Arrokak (Olaztiko jainkosa mitologikoaren) etxean zituen animalien ikurra da.

JANZKERA

Hauek bi ardilarru janzten dituzte; bat aurretik eta bestea atzetik. Atzeko ardilarrua buruan daramaten ipurukora lotzen dute eta aurpegia zapi txuri batekin estaltzen dute. Ardilarruaren azpian gona jartzen dute. Eta ispiritu gaiztoak uxatzeko farak edo joareak eramaten dituzte.

HASIERAKO OSPAKIZUNA

Inauteriak sortu zirenean pertsonai bakoitzak egun bat zuen eta zamar haundi egunean ateratzen ziren pertsona gehienak mutilak ziren. Izan ere, festa horretan neskak eta haurrak beldurtzen zituzten. Mutilak egun hori askatasun eguna bezala hartzen zuten eta neskak inoiz baino gehiago gutxiesten zituzten. Adibidez, neskak urtean zehar ezetz esaten bazion mutila egun horretan berataz abusatzen zuen. Hortaz aparte, gona zeramatela aprobeztatzen ez zuten azpitik ezer janzten eta haur bat ikusten zutenean gona altxatzen zuten beraiek izutu arte. Mutil guztien artean neskaren bat ere bazegoen, baina, beti bere anaien babespean.

GAUR EGUNGO OSPAKIZUNA

Gaur egun pertsonai guztiak egun berean ateratzen dira, larunbatean. Hasteko, herri bazkaria egiten dute eta horren ondoren, Zamarraundiak, Zamartxikiak eta neskak prestatzen dira kalez kale ibiltzeko, txaranagaz lagunduta. Aurrean alkatea eta alkatesa, auntsaiak, apaiza eta medikua joaten dira. Atzetik, Mari Arrokarri zamar haundi batek gurdi baten gainean eramaten dio suzko igitai batekin, Iratxoez lagunduta. Eta hoiien atzetik zamarroak. Oraindik ere beraien helburua jendea izutzea da. Gurdi bat lurrez beteta daramate eta mozorrorik gabeko jendeari botetzen diote. San Sebastian besalizan jota dantzatzen dute herri osoarekin eta plazara iristerakoan zamarroek Olaztiko zortziko dantzatzen dute

Pertsonaiak

Alkatea, Alkatesa, Apaiza, Medikua, Aguazila, Auntsaia eta Basozainak ateratzen dira.

Zamar Haundiak: Hauek lurrez, aintzinean ongarriz, betetako gurdia bultzaka daramate, zamar txikien laguntzaz. Hauen janzkeran bi ardilarru daude; bata aurretik eta bestea atzetik. Atzeko ardilarrura lotuta dago buruan daramaten ipurukoa eta zapi txuri batez gordetzen dute aurpegia. Ardilarruen azpian gonak daramatzate. Eta denek farak edo joareak daramatzate izpiritu gaiztoak uxatzeko.

Zamar Txikiak: Aurpegia beltzez zikindurik daramate. Bizkarrean ardilarru bat eta zintzarriak daramatzate. Oso zalapartatsuak direnez, gurditik lurra hartzen dute mozorrik ez daramatenei botatzeko.

Neskak: Lepora loturik eta sorbalden gainean lurreraino iristen den burudi bat daramate kapa bat balitz bezala eta buruan saskitxo bat (garai batean elizara kandelak eramateko edo dirua eskatzeko erabiltzen zena) koloretako zintaz beteta, aurpegia estaltzen diena. Batzuek erratza ere daramate.

Mari Arroka: Mari Arroka (Olaztiko jainkosa mitologikoa) gurdi baten gainean, suzko igitai eramanez kalerik kale ibiltzen da Mari Arroka, bi Zamar Handik eramanda. Laguntzaileak ere baditu: **Iratxoak** eta **Sorginak**. Olaztiko jainkosaren mitoak dio igitai baten gainean hegaz joaten zela mendi batetik

bestera, Aizkorritik Urbasara eta alderantziz, Olaztiko zerua zeharkatuz. Horregatik, gaur egun, Olaztiko *ihoteen* pertsonaia bihurtu da. *Ihoteak* herriko plazan bukatzen dira, bertan Olaztiko zortzikoa, jota eta porrusalda dantzatzen dituzte kioskoaren inguruan.